

## PIARRES BROUSSAIN-en paperak

1978-VIII-25

*P. Xarritton*

1920 eko apirilaren 27 eko gauean, Orthez-Départ-eko bere kusi Luis de Saint-Jayme-en etxen, burmuineko odolkolpe batez hil zen bapatean, Piarres Broussain hazpandar euskaltzale handia. Hazparne Jauregizaharreneko bere bulegoan begiratuak zituen bere gaztaroko eta helduaroko lagun eta adixkiden eskutitzak, bere ahaide ta etxeko en gutunak, bere kargu ta ofizioz bildu kondu ta paperak, hots berrogoi bat urtez eskuratu bere bizi guziko paper xehe ta larriak oro.

Ondotik Ameli Baratchart bere alargunak kutxa handi batzutan ezarri zituen eta errespeturekin zaindu, han berean behin, eta gero Jauregizaharrenea saldu zuenean, 1934 ean, Baionako bere etxean, 28 Lormand karrikan.

Ama hil zitzaionean Baionan, 1962 eko uztailaren 13 an, andere Jencfa Broussain-Leroy-k zituen bere aita zenaren paper guziak ekarri Lehuntza Nagileko bere etxerat. Andere hunek dizkigu paper horiek oro eskutarat eman, denak bereiz genetzan eta fotokopiaz har, bai Baionako Euskal Museoa-arentzat, bai Euskaltzaindiarentzat.

Piarres Broussain, "amerikano" seme, etxeko-seme ona baitzen, bazuen bere Barrandegiko etxe-partearekin, bere mediku-irabaziarekin eta gero bere emaztearen dotearekin edo bere herriko auzapez bezala, doi bat diru eta funts gobernatzeko: hor daude beraz salerospen, mailegu edo prestamu kondu, bankari, notari, ofiziale edo etxetiar paper xeheak gaurko kontularier, duela ehun urteko ekonomiaren berri eman liezaieketenak.

Barnagodanik Piarres Broussain ezagutu nahi lukeenak, baditu lehen lehenik, bere amaren, haurrideen, koinaten,

emaztearen, alaben, sehien eskutitzak. Nahiz Piarresen beraren erantzunak eskas ditugun, etxekoen solasetarik nabari da nor zer zen etxekoentzat gure gizona. Eta menturaz hobeki ezagut dezakegu oraino bere gaztaroko lagun eta adixkiden idazkietarik. Etxekoen ganik ikusten dugu alabainan zer izan ziren Barrandegiko familiaren gora beherak eta nola hartzen zituen Piarresek etxeko atsegin eta atsegabeak, batzutan ere etxekoen arrenkurak eta kexuak. Bainan orroitu behar gara hogoi urte luze iragan zituela Broussainek, joan den mende hondarrean, Pariseko medikuntza eskoletan. Orduko lagun eta adixkiden eskutitz gehienak begiratu ditu Hazparneko mediku eta auzapez euskaltzaleak. Paper horitu horiek eskuratzean gogoratzen zaizu beihalakoaren erran zaharra: Norekin habilan erradak, nor haizan asmatuko diat. Hain xuxen Euskal Herriko gazte lagunez bestalde eta Uruguayar edo Frantses bat edo biez beste lagun guziak, Quebectiarrak zituen gure hazpandar ikasle gazteak. Hor ditugu lekuko heien eskutitzak: Laberge (8), Prévost (6), Ouimet (3), Godin, Chrétien, Benoît, Daru, Villeneuve, gaur ere izen ezagunak Montréal, Valleyfield edo Sherbroocke-n itzuli bat egiten duenarentzat. Ez du egia erran iduri, politika kezka handirik badutela oraino gazte hoiak guziek, gazte solas arinak derabiltzate gehienetan, bainan bagaude Broussain gazteak ez ote zuenetz ordukotz sendi Québec-eko problemak bazukeela Euskal-Herriko-aren zerbait eite.

Hasteko, Uruguayko bere adixkide Francisco Fernandez delako mediku batentzat, 1887-tik 1914-erat igortzen dizkion 18 gutunetan Piarres Broussain "Querido Vasco mío", "Ene Euskaldun maitea", da beti.

Hor ditugu gero Euskal-Herriko ezagun eta lagunak eskutitzak: Zakur errabiatu batek ausiki duen herritar bat Parisen lagundu duelakotz, edo beste edozoin zerbitzu han gaindi egin duelakotz, eskerrak bihurtzen dizkiote, Hazparneko Lorda, Londaitzbehere, Durruty, Diharce, Beheranek, bai eta Kanbo, Uztaritze eta bereziki Baigorriko adixkidek. Baigorriarrak dira alabainan Mocoçain apeza, 13 gutun utzi dizkiguna, Minjonnet adixkidea (13), Mendiboure medikua (8) eta Ernautene. Hauiekilan ditu Broussain gazteak kurritu bakantza denboretan Euskal Herrietako mendi gehienak eta hauiek berek dute bildu nahiko Baigorriat bere eskolak bururatu dituenan.

Azkenean badakigu Durruty mediku zenaren segida hartu zuela Piarres Broussain-ek bere sorterrian, mende hunen hatsarrean. Berehala sartu zen Harriague-Morroxko-ren lagun, herriko kontseiluan. Geroxeago ezkondu zen, 1904 ean eta Morroxko hil zenean ondoko urtean, hunen ordain, Hazparneko auzapez jarri, berak kargu hori utzi arte, kontseilari jeneralgoa hartzeko, hiltzeko bezperan.

Hazparne herriak bere auzapez zenari joan den apirilaren 16an eskaini dion omenaldian, Janpiarre Larremendik aipatu ditu herri-gizon bezala Piarres Broussainek ibili urrats larrienak: bozkaldien gora beherak, gerla denborako harat hunatak, herri-lurretako lanak. Horien ororen berri xeheak badaude gure gizonaren paperetan.

Bainan oroz gaisetuk Euskaltzaleen eta Euskaldungoaren historiarentzat dira interesgarri Piarres Broussain, Euskaltzale eta Abertzale handiaren paperak. Alde batetik, Azkueren Hiztegiarentzat eta Kantutegiarentzat bildu zituen hitz, hizkuntza eta kantu edo pertsuez beste asko baditugu, gure medikuak, Hazparne, Aiherra, Isturitze, Bezkoitze, Lekuine, Heleta, Gerezieta edo Bardotzeko bizpahiru ehun etxetan, bere erien ikusten zabilalarik bilduak zituenak eta paper muttur batzutan bere eskuz notatuak. Oro har 1000 hitz eta hizkuntza, 12 kantu edo pertsu-berri paper kondatu ditugu: aztergai pollita orai beretik, unibertsitari gazte batentzat.

Bestalde eta azkenekotz hor dugu Euskaltzaleen 'esku-tiztegia' 230 zenbaki dauzkana: 100 frantsesez idatziak, 80 euskaraz eta 50 gaztelaniaz.

Hoitarik 80 bat badira Azkuerenak, Jean Haritschelhar-ek bere Hazparneko mintzaldian aipatu dituenak, erdiak euskaraz dira, eta 7 dira bakarrik orai arte "Euskaran" agertuak. Ez dugu guk berriz hemen erraite beharrik zoin aberatsak diren bai Azkue ta Broussain-en lanen eta laguneren ezagutzeko bai XX mende huntako lehen laurdenaren historia aztertzeko gure Herrian. Hor daude ere beste eskutitz guziak: Hiriart Urruty-ren 28ak, Constantin (16), Etchepare (4), Larrieu (3), Guilbeau (3) Dourisboure Mendiondo lagunena, Arbelbide (10), Daranatz (8), Adema-Zalduby (3), Haristoy, Dubarat, Etchegoyen, Heguy apezena bai eta Georges Lacombe (16), Frédéric de Saint Jayme (6), Sabino de Arana

Goiri (5). Estanislao de Aranzadi (4), Pochelou (4), Amédée Larrieu (3) Darricarère (3), Webster, Gavel, Garmendia, Mugica, Urquijo, Eleizalde eta Dibildos adixkide minarenak ere oraindik elgarretaratu ez ditudanak, batzu familiakoen artean baitohatzi.

Dena dela, izen horien sailak berak erakusterat emaiten digu, 1900 etik 1920-erat ez dela egin Euskal Herrietan ez Euskal jai, ez bilkura, ez biltzar, ez batasun, ez lan funtsezkorik, gure Euskaltzale hunek lagundu gaberik edo bederen jakin gaberik. Horra zergatik "Eskualduna" astekariaren historia edo "Eskualzaleen Biltzarrarena" edo "Cercle d'Etudes Euskariennes" edo "Eusko-Ikaskuntza" edo "Euskaltzaindia"rena edo "Euskara Batua"rena aztertu nahiko duenak beharko dituen nahi-t-ez ikertu eskutitz hauk.

Neure solasaren berme, eta astirik banu, Euskaltzaindi hunen historiaren hastapenari tokatzen zaion puntu bat argitzeko irakur niezazuke Koldo Eleizalde-ren 1919-ko irailaren 30-ekoa.

\* \* \*

Hondarrean galde bat egiten diot neure buruari: zer gertatuko ote da eskutiztegi honekin? Andere Jenofa Broussain-Leroy beren jabeari itzuli baino lehen, paper hauien bi kopia hartzen ari dira Baionako Museoan. Bainan ez ote luke merezi eskutiztegi hunek, lehenik osatzea, Azkue, Daranatz, Lacombe, Arana Goiri edo beste eskutiztegietan aurki datezkeen Broussainen erantzunak bilatuz eta bilduz? Gero berriz hor genuke dokumentu horien argitaratzearen problema. Hots beti gure sustraiak ezagutzearen ta guretzeearen problema. Dena den problemak ikustea ere zerbait bada. Medikuzaharrek zioten, "gaitz ongi ezagutua erdi sendatua dela". Halabiz.